



GURE ESKUBIDEAK

Azaroak 20, HAURREN MUNDUKO EGUNA
Eskubideak 54 badira ere, guk 10 hauek ekarri ditugu

DISKRIMINAZIORIK EZA

Ondoren azalduko diren eskubideak denoi berdintasunean aplikatzeko eskubidea dugu: geure jatorria, kultura, erlijioa, hizkuntza, sexua, egoera sozioekonomikoa nahiz ezaugarri fisiko zein mentalak dena delakoak izanda ere.



HAUR DESGAITUEN ESKUBIDEAK

Desgaitasun fisiko, sentsorial edo psikikoren bat dugun haur guztiok bizitza duin eta oso baterako eskubidea dugu. Baita geure duintasun propioa bermatua izateko, geure kabuz moldatzeko eta komunitatean parte-hartze aktiboa izateko ere.

JASOTZEN DUGUN HEZKUNTZAK IZAN BEHARREKO EZAUGARRIAK

Norberaren gaitasunak, nortasuna eta gaitasun mentala eta fisikoa ahalik eta gehien garatzera bideratutako hezkuntza jasotzea dagokigu. Haurrok giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzen ikasteko moduko hezkuntza jasotzeko eskubidea dugu.

ELKARTZEKO ESKUBIDEA

Pertsona guztiok dugu besteekin elkartzeko eskubidea; betiere, bidezko helburuak lortzeko. Baita elkarteak sortzeko askatasuna ere, areago, alde zuzeneko baimenik behar izan gabe.

JOKORAKO ETA ATSEDENERAKO ESKUBIDEA

Haur eta nerabe guztiok dugu jolasteko, atsedena hartzeko eta adinari dagozkion jolas-jardueretan parte hartzeko eskubidea. Kultura- eta arte-jardueretan parte hartzeko eskubidea ere badugu; beraz, estatuek aukera egokiak eta berdintasun-baldintzetan sustatu behar dituzte jarduerak horietan umeek integratu ahal izateko.

INDARBERRITZEA ETA GIZARTERATZEKO ESKUBIDEA

Edozein abandonu, esplotazio edo abusu mota; tortura edo bestelako tratua edo zigorrak; edo gatazka armatu egoera biziz gero, Estatu alderdiek neurriak hartuko beharko dituzte nor bere onera etor gaitzen.

IRITZIA EMATEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO ESKUBIDEA

Eskubidea dugu gai guztietan geure iritzia askatasunez adierazteko eta gurekin zerikusia duten gaietan entzunak izateko.

LAN ARRISKUTSUAREN ETA LAN-ESPLOTAZIOAREN AURKAKO BABESA

Eskubidea dugu lan egitera behartuak ez izateko. Lan egin beharra dagoen kasuetan, gure osasunerako edo garapen fisiko, mental, espiritual edo sozialerako arriskutsuak ez diren baldintzetan lan egiteko eskubidea dugu.



INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

Bizitza pribatua izateko eskubidea dugu. Inork ez du okerkeriaz edota lege kanpo muturra sartu behar ez gure bizitza pribatuan, ez familia esparruan, ez eta jasotzen ditugun posta-trukeetan (posta elektronikoa, gutunak, etab.)

GURASOEN/ARDURADUNEN ERANTZUKIZUNA EGUNEROKO ARRETAN

Eskubidea dugu gurasoak gure heziketaz arduratzeko. Gurasoek horretan laguntza beharko balute, agintariek beharrezko laguntza eta babesa eskaini beharko diete.



GEU GARA GEURE ESKUBIDEEN PROTAGONISTAK